

## ESKUBIDEAK GIZATIARRAK DIRA MUNDU GLOBALEAN BIZI BAIKARA

### 0. Edukiak

Demokrazia.  
Diskriminazioa.  
Pobrezia.  
Hiritartasuna.  
Globalizazioa.  
Eskubide Sozialak.

### 1. -Definizioa

Hitzarmena eta Giza eskubideen unibertsaltasunaz jabetzea da helburua, eta hauen lorpenaz; eta noski, hau ere maila unibertsalean: pertsona guztiak pertsona gisa tratatuak eta errespetatuak.

### 2. -Helburuak

- Bizi, tokian tokiko esperientziatik abiatuta, mundu mailako izaera izan arte.

### 3. -Partaideak

15 pertsonetatik gora.  
Adina: 12 urtetatik gora.

### 4. -Materiala

Gehigarrian doan fitxa.

### 5. -Hasierako oharra

Talde handia.

### 6. -Garapena

Partaide bakoitzari kartulinaran edo orri batean gehigarrian doan galdera xorta ematen zaio eta taldeko beste lagunek emandako informazioarekin taulan agertzen diren ahalik eta lauki gehienak betetzeko eskatuko diegu. Taulako galdera bati baikor erantzuten dion lagunen batekin topo egitean, dagokion laukian lagunaren izena eta jatorria idatziko da. Kartulina/orri osoan, ezingo da inoren izena errepikatu. Taulako hiler bat betetzea lortzen duenean (bai horizontalki, edo eta bertikalki) partaideak esan dezake "Globingo!"

Partaideak harrিতuta geratuko dira zenbat lotura dituzten munduarekin, zentzu zabalean, hau da, beraien tokian tokiko zentzuaz gain. Esperientzia amaitu ondoren, eta dinamikako gertaerak era orokorrean aipatu ondoren zera eska diezaiekegu partaideei: dauden lotura global ezberdinak zehazten dituzten kategoriak definitu ditzatela (adibidez: pertsonen migrazioaren ondorioz sortzen diren loturak, e.a.).

Ondoren, gaian sakondu dezakegu planisferioa aintzat harturik (eta bereziki Petersen ikuspegia oinarri harturik) eta maparen bidez, dinamikan agertu diren herrialdeak kokatuz. Kolorezko jostorraz eta hariekin, herrialdea zehaztu daiteke herriarekin lotuaz, era horretan, bisualki nabaritu da dagoen lotura globala.

Jarraian azaltzen diren ideiekin lanean jarrai daiteke: “mundu bat jaki-tokian” (despentsan). Gure etxean dauden jakien jatorria aztertuko dugu, gure herrian gehien jaten diren elikagaiak, herrialdean, e.a. Supermerkatura bisita bate gin daiteke, bertan eros daitezkeen elikagaien eta produktuen jatorria zein den ikus dezagun.

### **7. -Ebaluaketa**

Ekintza honen helburua zera da: barneratzen joan gaitzkeela berdinak gabela eta aldi berean ezberdinak. Era ezberdinak daude hori lortzeko: adibidez, emozioak lantzea, izan ere, kultura guztietan baitaude (maitasuna, maite dugun pertsona baten desagerpenak sortzen duen mina, e.a.)

Berdinak gara? Ezberdinak? Ni Ameriketako pertsona horren antzera sentitzen al naiz? Berdin adierazten al dugu sentitzen duguna?.

### **8. -Iturria**

Giza Eskubideen alde, Bakerako hezkuntzarako Seminarioa. Dinamika eta ekintzak. Madrid, 1999.

## GEHIGARRIA 1

Bilatu ezazu ezaugarri hau duen lagun bat:

1. Atzerriko herrialde batera bidaiatu duena
2. Kanpoko pertsona batekin idazten dena
3. Atzerriko hizkuntza bati kasten ari dena
4. Familia atzerrian daukana
5. Atzerriko turista bati lagundu diona (adibidez, galdera bati erantzunez)
6. Beste herrialde batzuetako musika talde baten jarraitzailea dena
7. Atzerrian egindako arropa bat jantzia duena
8. Beste herrialde batzuetako janariak gustatzen zaizkiona
9. Beste herrialde bateko kirolari famatu bat ezagutzen duena
10. Beste herrialde batean egindako kotxea duena
11. Atzerrian bizi izan den pertsona batekin hitz egin duena.
12. Hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten den etxe batean bizi dena
13. Atzerriko herrialde batean egindako komikiren bat irakurri duena
14. Duela gutxi, telebista bidez, atzerriko herrialde bateko zerbait ikasi duena
15. Bere aita/ama edo familiako norbait atzerrian jaioa duen norbait

1. Izena: Herrialdea:	2. Izena: Herrialdea:	3. Izena: Herrialdea:
4. Izena: Herrialdea:	5. Izena: Herrialdea:	6. Izena: Herrialdea:
7. Izena: Herrialdea:	8. Izena: Herrialdea:	9. Izena: Herrialdea:
10. Izena: Herrialdea:	11. Izena: Herrialdea:	12. Izena: Herrialdea:
13. Izena: Herrialdea:	14. Izena: Herrialdea:	15. Izena: Herrialdea: